

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2021 Foru Dekretua, martxoaren 16koa. Onespena ematea nekazaritza ustiategietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzak arautzeko oinarriak aldatzeari, zeinak Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren, eta laguntza horien deialdiari

Diputatuen Kontseiluren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritza ustiategietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzak arautzeko oinarriak onetsi ziren, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planaren esparruan ("M04: Aktibo finkoetako inbertsioak" neurriaren barruan dago jasota).

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuak oinarri arau horiek aldatu zituen, haietan agertzen ziren lege erreferentziak eguneratzeko eta indarrean zegoen araudira egokitzeko, eta, gainera, laguntza horien 2018ko deialdia onetsi zuen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2220 Erregelamenduak Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) 2021. eta 2022. urteetarako laguntzetarako xedapen iragankorrak ezarri zituen, eta 2022ko abenduaren 31ra arteko luzapena ezarri zuen, LGENFk finantzatzutako eta 2020. urtean amaitzen ziren programetarako.

Bestalde, Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak Europar Batasuna suspertzeko tresna bat ezarri zuen, COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko, eta ezarri zuen ezen tresna horren funtsen zati bat Landa Garapenerako Programen esparruan erabili behar dela 2021. eta 2022. urteetan. Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko LGPak tresna horretatik datozen funtsak izango ditu (EURI funtsak), eta, zehazki, Arabako Foru Aldundiak 754.089,00 euro izango ditu nekazaritza ustiategietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako, 2021ean eta 2022an. Deialdi honetan, 625.000,00 euro bideratuko dira, eta jarduketa horien ehuneko 53 EURI funtsak kofinantzatuko ditu.

Aurreko deialdietan izandako esperientziaren ondoren, beharrezkoa da laguntza horien oinarri arautzaileen alderdi batzuk zehaztu, argitu eta azaltzea, aipatutako oinarriak hobeto aplikatzeko, bereziki luzapen aldi honetan.

Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuan 625.000,00 euroko kreditua dago ekitaldi horretan laguntza horien deialdia egiteko (475.000,00 euro 2021. urterako eta 150.000,00 euro 2022. urterako).

Aginduzko txostenak aztertu dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren diruz lagundu daitezkeen gastuak ezartzen dituen 5.1 artikulua lau apartatua, eta honela uztea:

5.1.4. Erakunde bakoitzak inbertsioengatik jaso dezakeen gehieneko laguntza, halakorik balego, deialdi bakoitzean zehaztuko da, bai eta erakunde bakoitzak eska dezakeen gehieneko inbertsio eta/edo bide kopurua ere.

Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak ezartzen dituen 5.2 artikulua 4 apartatua, eta honela uztea:

5.2.4. Deialdi bakoitzean zehaztutako zenbatekotik beherako inbertsioak edo jarduketak.

Hirugarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren obren kontratazioa arautzen duen 7. artikulua 1 eta 2 apartatuak, eta honela uztea:

7.1. Bideen titularrak diren erakunde onuradunek Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera kontratatuko dituzte obrak edo zerbitzuak. Horretarako, Nekazaritza Sailak behar bezala aholkatuko ditu, eta erakunde onuradunek, lanak esleitu aurretik, lizitazioaren espediente osoaren kopia bidali beharko diote, aldizkari ofizialetan eta Kontratatzailaren Profilean argitaratutako iragarkiak barne, salbu eta lanak kontratu txikiaren bidez esleitu badira.

Lanak kontratu txikiaren bidez esleitu badira (40.000,00 euro baino gutxiagoko obra kontratuak eta 15.000,00 euro baino gutxiagoko bestelako kontratuak, BEZa aparte), esleipena egin baino lehen gutxienez hiru eskaintza eskuratu beharko dituzte erakunde onuradunek, salbu eta ezinezkoa dela justifikatzen badute, eta horren guztiaren kopia bat igorri beharko diote Nekazaritza Sailari.

7.2. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari kontratazioari buruzko agiriak aurkezteko epea laguntzaren ebazpena jakinaraztean zehaztuko da.

Laugarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa arautzen dituen 9. artikuluko 2 apartatua, eta honela uztea:

9.2. Urteko deialdi bakoitzean, honako hauek zehaztu ahal izango dira:

- Laguntza motak eta diruz lagundu daitezkeen inbertsioak.
- Laguntza mota bakoitzerako kreditu erreserba. 3.5 artikuluan aipatzen den eta inbertsioei lotuta dagoen laguntza motarako, beharrezkoa balitz, ez da kreditu zenbateko jakin bat erabiliko: inbertsioa zein motari dagokion, hartara bideratutako kredituarekin ebatziko da.
- Diruz lagundu beharreko inbertsioak edo jarduketak hautatzeko sailkapen taldeak.
- Aplikatu beharreko laguntza ehunekoak.
- Erakunde bakoitzak inbertsioengatik jaso dezakeen gehieneko laguntza, bai eta erakunde bakoitzak eska dezakeen gehieneko inbertsio eta/edo bide kopurua ere.
- Zein zenbatekotatik behera ez diren diruz lagunduko inbertsioak edo jarduketak.

Bosgarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren ebazpena eta jakinarazpena arautzen dituen 12. artikuluko 4 apartatua, eta honela uztea:

12.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa edo jarduketa, diruz lagundutako inbertsioaren gaineko gastua, finantza plana eta kontratazioari buruzko agiriak aurkezteko epea, gauzatzeko epea eta urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoiak.

Seigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren laguntzen ordainketa arautzen duen 13. artikuluko 1 apartatuaren laugarren gidoia, eta honela uztea:

– Egindako obraren ziurtapena, obrak kontratatu zituen organoak onetsia eta obraren zuzendaritzak emandakoa; kontratu txikien kasuan, nahikoa izango da onetsitako fakturan jasotzea benetan gauzaturako unitateen zerrenda balioetsia edo haiek kontratazio aurrekontuan zehaztea.

Ziurtagiri partzialen gaineko ordainketak egin ahal izango dira, eta onuradunak nahitaez amaitu beharko du diruz lagundutako obra. Ordainketa partzial horiek egiteko, beharrezkoa izango da egindako obraren bolumena egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoak izatea, eta obra bolumen horri dagokion faktura aurkeztea, bai eta faktura hori hurrengo apartatueta adierazitako moduan ordaindu izanaren egiaztatzea ere, salbu eta kobratzeko eskubidea hirugarren bati laga bazaio; kasu horretan, ez da beharrezkoa izango ordainketa egiaztatzea.

Zazpigarrena. Aldatzea laguntzen ordainketa arautzen duen 13. artikuluko 1 apartatuaren hirugarren gidoia, eta honela uztea:

13.1 Erakunde onuradunei diruz lagundutako inbertsioak edo jarduketak gauzatu ondoren eta honako agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko zaizkie dirulaguntzak:

– (...)

– (...)

– Egindako gastuen justifikazioa, jatorrizko faktura eta konpultsatu beharreko kopia aurkeztuz. Faktura originala zigilu baten bidez kontrolatuko da, adierazten duena Arabako Foru Aldundiak eta LGENFek edo EURIk diruz lagundu dutela, hala balitz.

Zortzigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren onuradunen betebeharrak ezartzen dituen 14. artikuluko 2 apartatua, eta honela uztea:

14.2. Onespina ematea organo eskudunak (Osoko Bilkura/Alkatetzaren Dekretua/Kontzejua) egin beharreko obra guztien finantza planari. Finantzaketa planean, hala badagokio, ziurtagiri edo ordainketa bakoitza kobratzeko eskubideak kontratista esleipendunei edo hornitzaileei lagatzeko asmoa adierazi ahal izango da.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari finantza plana aurkezteko epea laguntzaren ebazpena jakinaraztean zehaztuko da.

Bederatzigarrena. Aldatzea laguntzen finantzaketa arautzen duen 19. artikuluko 1 apartatua, eta honela uztea:

19.1 Dirulaguntza hauetara bideratutako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontuko kredituetatik aterako dira eta, kasua bada, ehuneko 53 Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) edo Europar Batasuna suspertzeko tresnatik (EURI) aterako da.

Hamargarrena. Aldatzea laguntzen finantzaketa arautzen duen 19. artikuluko 4 apartatua, eta honela uztea:

Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio erakunde onuradunari, LGENFek (edo hala badagokio EURIk) finantzatutako zatia, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. LGENFetik datozen laguntzen zatia Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak bere erakunde ordaintzailearen bidez ordainduko dio Arabako Foru Aldundiari, bat etorritz urriaren 3ko 194/2006 Dekretuak xedatutakoarekin, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Ordaintzailea eratzen baita. Ordaindu beharreko zenbateko horiek Nekazaritza Sailaren aurrekontu partidetan sartuko dira horretarako irekitako kontuan.

Hamaikagarrena. Onspena ematea dirulaguntza horien 2021erako deialdiari, I. eranskinaren arabera.

Hamabigarrena. Deialdi hau ehuneko 53an kofinantzatu ahal izango da COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko ezarritako Europar Batasuna suspertzeko tresnaren garapenerako partidaren kontura (Kontseiluaren 2020/2094 Erregelamendua -EB-). Hala ez bada, emandako laguntzak laguntza nazional gehigarritzat joko dira.

Azken xedapena. Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



I. eranskina

Nekazaritza ustategietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzen 2021eko deialdia.

1. Laguntza motak eta diruz lagundu daitezkeen inbertsioak:

Hona hemen laguntzaren xede diren laguntza eta inbertsio motak:

1.1.- Lehendik dauden bideak egokitzea (oinarri arautzaileen 3.2. artikulua), hau da, bideen egiturek eta haien elementu osagarriek jasandako kalteak konpontzea.

1.2.- Lehendik dauden bideak hobetu eta berritzea (oinarri arautzaileen 3.3. artikulua), bidearen ohiko erabilerak agortutako zorua berritzea, baita asfaltozko zoladura zabalduz hobetzea ere.

2. Deialdiaren berezitasunak laguntza mota bakoitzean:

2.1. 1 laguntza mota.- Lehendik dauden bideak egokitzea (3.2. artikulua):

- Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak edo jarduketak hautatzeko kontuan hartuko diren taldeak eta diruz lagundu daitezkeen gastuaren mugak: Diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren edo puntuazioaren irizpidea zehazteko, laguntza lerro honetan honako talde hauek hartuko dira kontuan:

1.- 1. taldea (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea)

2.- 3. taldea (lehendik dauden bideak egokitzea).

- Dirulaguntzaren ehunekoa: 1. talderako, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 75era arte, eta 3. talderako, berriz, ehuneko 65era arte, Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Talde horietan gehienez eskatu daitezkeen inbertsio edo bideen kopurua: 1. taldean ez dago gehieneko mugarik; 3. taldean, berriz, gehienez ere bi eskatu ahal izango dira.

- Diruz lagundu daitezkeen gastuaren gehieneko muga erakundeko: lerro edo laguntza mota honetan, diruz lagundu daitezkeen gastuaren gehieneko muga erakundeko 45.000,00 euro izango da (BEZa barne).

2.2. 2 laguntza mota. Lehendik dauden bideak hobetu eta berritzea (oinarri arautzaileen 3.3. artikulua)

- Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak edo jarduketak hautatzeko kontuan hartuko diren taldeak eta diruz lagundu daitezkeen gastuaren mugak: 4. taldea baino ez da kontuan hartuko (Lehendik dauden bideak hobetu eta berritzea).

- Dirulaguntzaren ehunekoa: Era horretako laguntzetarako, dirulaguntzaren ehunekoa diruz lagundu daitezkeen gastuaren ehuneko 75 izango da gehienez, Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Talde honetan gehienez eskatu daitezkeen inbertsio edo bideen kopurua: gehieneko inbertsio kopurua bi bide izango da.



- Diruz lagundu daitekeen gastuaren gehieneko muga erakundeko, lerro edo laguntza mota honetan: laguntza mota honetan, erakundeko diruz lagundu daitekeen gastuaren gehieneko muga 125.000,00 euro izango da (BEZa barne).

Bi laguntza motetan diruz lagunduko dira jarduketa orokorren kostuak; hain zuzen ere, honako hauekin lotutakoak: obra proiektua idaztea, obra zuzentzea, segurtasunaren eta osasunaren gaineko azterlana egitea eta beharrezkoak izan daitezkeen eta inbertsio batekin lotutako proiektua zehazten duten azterlan guztiak, baldin eta Nekazaritza Sailak jarduketa horiek gauzatzeko teknikaririk ez badu edo beste arrazoi batzuegatik hori erabakitzen bada.

Talde bakoitzaren barruan, laguntzak arautzen dituzten oinarrien 8.2. artikuluan ezarritako puntuazioaren arabera barematuko dira bideak.

3. Aurkezteko epea: hamabost egun baliodun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

4. Aurkezteko lekua: Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra. Hori ez da oztopo izango Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.

Erakunde eskatzaileek laguntza eskaera bakarra aurkeztuko dute, eta, bertan, egin beharreko obra eta jarduketa guztiak jasoko dituzte, bai eta lan horiek zein bidetan gauzatu nahi dituzten ere. Gehienez ere, bi bide sartu ahal izango dituzte eskaera bakoitzeko, salbu eta 1. taldeari dagokion eskaera bada (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea), talde horretan ez baitago mugarik.

5. Kreditu erreserba: 625.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea. Deialdi berria" 40.01.01.46.01.762.90.02 partidaren kontura, honako urteroko hauetan banatuta:

- 2021. urterokoa: 475.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.1.21.105.431/00.
- 2022. urterokoa: 150.000,00 euro. Zorpekin erreferentzia: 21.3.22.105.17/00.

Laguntza mota bakoitzerako honako zenbateko hauek ezarri dira:

- 1 laguntza mota, 1. taldea (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea), 3. taldea (lehendik dauden bideak egokitzea): 425.000,00 euro 2021. urtean, bi taldeetarako.

- 2 laguntza mota, 4. taldea (lehendik dauden bideak hobetu eta berritzea): 200.000,00 euro.

- 2021. urterokoa: 50.000,00 euro.
- 2022. urterokoa: 150.000,00 euro.



Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein ziozengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Ez badago aurrekontu kreditu nahikorik 1 laguntza motako (lehendik dauden bideak egokitzea, oinarri arautzaileen 3.2. artikulua) 1. taldeko bideetako lanak (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea) diruz laguntzeko, gainerako lerro eta taldeetarako gordetako kredituaren zenbatekotik kenduko da, eta horietara aurkeztutako eskabideak ukatu egingo dira.

Era berean, deitutako laguntza lerro edo talderen batean soberako kreditua badago, beste lerro edo talde batera bideratu ahal izango da, baldin eta defizitarioa bada.